

9. KOSTUEN EGITURA

Enpresa bat aurrera eramateak dakartzan kostu guztien definizioa da. Prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dituzte, eta gure enpresak gai izan beharko du gastu horiei aurre egiteko.

Hauexek izan daitezke kostuen egituren ezaugarriak: kostu finkoak, kostu aldakorak, eskalako ekonomiak eta hedadura-ekonomikoak.

- **Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?**

Gure proiektuaren kosturik garrantzitsuenak bi motatakoak dira: kostu finkoak eta kostu aldagarriak.

Kostu finkoetan, lokaleko mantenua, hau da, argia, ura eta alokairua.

Kostu aldagarrietan, erremintak, bizikletaren mantenua eta lehengaiak, adibidez, haziak, gazta eta ogia.

